

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Erabiltzailearen eskuliburua

(2015eko martxoa)




1. Aplikaziora nola sartu	3
2. Deialdiaren aukeraketa	4
2.1 Deialdi irekiak	4
2.2 UPV/EHUren deialdiak	5
3. Eskaria hasi	5
3.1 Datu orokorrak.....	5
3.2 UPV/EHUko taldea	6
3.3 Enpresak	7
3.4 Enpresetako taldea	7
3.5 Zentro laguntzaileak	8
3.6 Zentro laguntzaileetako taldea	8
3.7 Proiektu aktiboak.....	8
3.8 Proiektuen laburpena	9
3.9 Kalitate zientifiko teknikoa	9
3.10 Metodologia	9
3.11 Zereginak eta entregatzekoak	10
3.12 Kronograma.....	10
3.13 Hedapena eta transferentzia	10
3.14 Ikertaldearen kalitatea	11
3.15 Ikertaldearen historiala	12
3.16 Bestelako alderdiak.....	12
3.17 Ekonomi memoria.....	12
3.18 Eskaria igorri Ikerketaren aldeko errektoreordetzara	13

1. Aplikaziorako nola sartu

Ikerketaren arloko Errektoreordetzako aplikazioari loturiko erabiltzaileek aplikazioa erabili ahal izango dute Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunea baliatuta, honako helbide honetan:

<http://www.ehu.eus/eu/web/ikerkuntza/home>



The screenshot shows the website interface for the research department. At the top, there are navigation links for 'Euskara' and 'Español', and campus locations: 'Arabako Campusa', 'Bizkaiko Campusa', and 'Gipuzkoako Campusa'. A 'HASI SAIOA' button is also present. The main header includes the university logo and the text 'Ikerketaren arloko Errektoreordetza'. Below this is a navigation menu with items like 'Profilak', 'Ikasketak', 'Egitura', 'Ikerketa', 'Unibertsitateara sartzeko bideak', 'Alorrak', 'Zerbitzuak', and 'Langileak'. A search bar is located below the menu. The main content area is divided into several sections: 'IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA' with a list of services; 'Laguntzak, Proiektuak, IK kontratuak'; 'Enprekin kontratuak eta Patenteak'; 'Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak' (SGiker); 'Horizon 2020'; 'Kontsulta-telefonoak' with a list of contact numbers; and a vertical sidebar on the right with buttons for 'IKERTU online', 'Izendapen bibliografikoa', 'Erakunde elkartuak', and 'Ikertzaileentzako ostalua'. The 'IKERTU online' button is circled in red.


Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunea

Erabiltzaileak erabiltzaile gakoa eta pasahitza sartu beharko ditu pantaila honetan:




Aplikaziorako sarbidea

Rol bat baino gehiago baduzu, aukeratu irakaslearen rola.



Rola aukeratzeko pantaila

2. Deialdiaren aukeraketa



2.1 DEIALDI IREKIAK

Erabiltzaileak ikusiko ahal du irekita dauden deialdien informazio orokorra eta zeintzuetara aurkeztu ahal den. Deialdien zerrenda ikusiko du eta informazio orokorragoa ikusi ahal izango du horietako bakoitzaren ezker aldean kokatutako botoiari sakatuta.

2.2 UPV/EHUKO DEIALDIAK

Aukera honetan ikertzaileak ikusi ahal du era honetako deialdietako proiektuen zerrenda, hauen egoera edozein delarik. Horietako batera sartzeko, eskuineko aldean kokatutako botoiari sakatu behar zaio. Esan behar da ezin daitekeela ezer ezabatu zirriborro egoeran ez bada, hau da, oraindik eskari gisa igorri ez bada.

UPV/EHUKO PROIEKTUAK				
	KODEA	IZENBURUA	IN	EGOERA
	18625		65224722B; Zando Ares, Susana	EUSK-Borrador
[1/1] 1 Erregistroak: 1				EZABATU
				EZEZTATU

UPV/EHU motako proiektuen zerrenda

Proiektuaren egoera zein den, menua desberdin agertzen da.

3. Eskaria hasi

Ikertzaileak, irekita dauden deialdien barruan eta deialdiotako irekiera eta itxiera daten artean, egingo ahal ditu proiektuetarako eskariak. Aukera honetara sartuta, irekitako deialdia hautatu beharko du eta gero, sartu beharreko datuak sartu beharko ditu.

Hau egin eta gero, menuaren alde ezberdinetara sartuko ahal da eta proiektuaren memoria teknikoari eta ekonomi memoriari dagokion informazioa beteko ahal da.

GARRANTZITSUA: *Ikertzaile nagusiak ez badu eskaria aldi bakar batean amaitzen eta gorde beharko balu, aurrerago betetzen segitzeko, ZIRRIBORRO egoeran gordetzen da UPV/EHUKO deialdietan diren proiektuen zerrendan eta ez da ESKARIA EGIN botoian klik egin beharko, UPV/EHUKO deialdietan bilatu baizik.*

3.1. Datu orokorrak


Pantaila honetan eskariari buruzko datu orokorrak sartu behar dira. Kontutan hartu behar da datu batzuk nahitaezkoak direla eta hauek gabe ezin izango da aurrera egin. Eremu hauek dira:

Proiektuaren titulua
 Iraupena
 UNESCO kodea
 Jardueraren sektorea (deialdiaren arabera)
 Saila
 Zentroa edo ikastegia

Datuak gordetzeko, onartzeko botoian egin behar da klik.

Oharra: Nahiz eta organikoa eta proiektuaren organikoa izeneko eremuetan asteriskoa agertu, ez dira bete beharrekoak.

Defektuz, aplikazioak bakoitzari dagokion saila esleitzen die. Institutu gisa parte hartu nahi bada, institutuari dagokion eremua bete beharko da.



The screenshot shows the 'IKERTU online' application interface. The left sidebar lists navigation options, with 'Datu orokorrak' circled in red. The main content area shows a form with the following fields:

- Deialdia: 2014 AYUDAS A LA INICIACION EN INVESTIGACION
- Eskara Urtea: 2014
- Egoera: EUSK-Borrador
- Sartze data: 2015/03/06
- Organica*: :14.NH.
- Convocatoria orgánica: NH
- Proyecto orgánica*: AC
- Acónimo:
- Titulua*:
- Titulua (euskara):
- Titulua (ingelesez):
- Ikertzaile nagusia*: 65224722B, Zando Ares, Susana
- Zentroa*: (Hautatu)
- Saila (Hautatu)
- Saila / Instituta*: (Hautatu)
- Traupena (hilabeteak)*:
- Hasiera data: [] [] []
- Amalera data: [] [] []
- Jardura sektorea: (Hautatu)
- UNESCO kodea*:
- Zientzi arloa: (Hautatu)
- ANEP Ebaluazio Arlo Nagusia*: (Hautatu)
- 2. Ebaluazio Arloa: (Hautatu)
- Zerbitzu Orokorra: (Hautatu)
- Gako hitzak:
- Laburpena:
- Laburpena (euskara):

Eskari baten datu orokorren pantaila

3.2. UPV/EHÜren taldea


Atal honetan sartu behar da proiektuan parte hartuko duen unibertsitateko taldea. Kontutan hartu behar da atal honetan, estatutuen aginduz, UPV/EHUri dagozkion ikertzaileak beste inor ezin dela agertu.

Ikertzaile bakoitzaren kasuan, adierazi behar da proiektuko urte bakoitzean egingo duen ordu kopurua. Ikertzaile nagusiaren kasuan, datu hauek sartzeko, izenaren ezkerrean den ERAKUTSI GEHIAGO botoiari sakatu behar zaio. Gainontzeko pertsonen kasuan, ordu kopuru hau izena hautatu eta gero jarriko da.

Ikertzaile bakoitzari fitxategi bat atxiki behar zaio, zein bere curriculum zientifikoarekin. Honen ezean, eskaria ezin izango da igorri.

Datuak gordetzeko, onartzeko botoian egin behar da klik.

Oharra: Urtean egin ahal den gehieneko ordu kopurua 1.100 ordutakoa da.



UPV/EHUko ikertzaileak sartzeko pantaila

3.3. Enpresak

Atal hau III. modalitatean bete behar da.

Bilaketan ez bada behar den enpresa aurkitzen, berori sartzeko eskatu behar da honako helbide elektroniko honetara bidaliz: convocatorias.dgi@ehu.es



Enpresak sartzeko pantaila

3.4. Enpresetako taldea

Proiektuan enpresen izenean parte hartuko duten pertsonak dira. Ikertzaile bakoitzarentzat izen-deiturak, kargua, proiektuan izango duen arduraldia eta doktore ote den zehaztuko dira.

Datuak gordetzeko, onartzeko botoian egin behar da klik.




Enpresei dagozkien ikertzaileak gehitzeko pantaila

3.5. Zentro laguntzaileak

Proiektu bakoitzeko, gehienera, hiru ikergune gehituko ahal dira, proiektuaren garapenean lankide arituko direnak. Bilaketan ez bada aurkitzen behar den zentroa, berori zentro laguntzaileen erregistroan sartzeko eskatu behar da convocatorias.dgi@ehu.eus helbide elektronikora mezua igorrita, zentroaren izena eta berarekin harremanetan jartzeko pertsonaren izen-deiturak zehaztuz.

Datuak gordetzeko, onartzeko botoian egin behar da klik.




Zentro laguntzaileetako ikertzaileak gehitzeko pantaila

3.6. Zentro laguntzaileetako taldea

Proiektuan parte hartzen duten zentro laguntzaileetako pertsonak dira. Ikertzaile bakoitzarentzat izen-deiturak, kargua, proiektuan izango duen arduraldia eta doktore ote den zehaztuko dira.


Datuak gordetzeko, onartzeko botoian egin behar da klik.



Zentro laguntzaileetako ikertzaileak gehitzeko pantaila

3.7. Proiektu aktiboak

UPV/EHUko taldean gehitu den ikertzaile bakoitzaren kasuan adierazi behar dira unean uneko proiektua eskatzerakoan aktibo diren proiektuak. Pertsona bakoitzaren kasuan adieraziko da proiektua finantzatzen duen erakundea, bere titulua eta jada konprometituta diren orduan, bai eta proiektua hasi eta amaitzeko datak ere.




UPV/EHUko taldearen proiektu aktiboak gehitzeko pantaila

3.8. Proiektuaren laburpena


Pantaila honetan jaso behar da proiektuaren laburpena eta identifikaziorako balio duten hitzak. Honez gain, proiektuaren ebaluaziorako arlo nagusia hautatu behar da eta bigarren mailako ebaluazio arloak.

Laburpeneko testuak laburra behar du izan, proiektuaren beraren helburu nagusiak agertu eta, gehien dela, 2.000 karaktere izango ditu.



Eskariaren memoria zientifiko tekniko laburtzeko pantaila

3.9. Kalitate zientifiko teknikoa



Eskariaren kalitate zientifiko teknikoa agertzeko pantaila

- Ikerketak zientzia eta teknologiarako planekiko duen garrantzia. Gehienez, 4.000 karaktere izango ditu luze.
- Aurrekariak, egungo egoera eta bibliografia adierazgarriena. Gehienez, 12.000 karaktere izango ditu luze.
- Ikerketak erdietsi nahi dituen helburuak. Gehienez, 4.000 karaktere izan ditzake luze.

Eremuren bateko datuak sartzen amaitzerakoan, ONARTU botoiari sakatu behar zaio informazioa gordetzeko.

3.10. Metodologia

Atal honetan, metodologiari, teknika instrumentalei eta instalazioei dagokien informazioa jaso behar da, proiektua gauzatzeko erabiliko direnak.




Eskariaren metodologia agertzeko pantaila

3.11. Zereginak eta entregatzekoak

Atal honetan jasoko dira ikerketan izango dituen zereginak edo etapak, bai eta honelakoetan entregatzekoren bat duen. Zeregin bakoitzeko adierazi behar da horren ardura izango duen pertsona, ikertaldeko kide izan beharko duena. Zereginen zerrenda hurrengo atalean agertuko da proiektuaren kronograma zehazterakoan. Horregatik, komeni da zerrenda hau ahal denik eta osatuena izatea, sekuentziak ongi berezita.

Eginkizun bakoitzerako sartutako datuak gordetzeko, GEHITU botoiari sakatu behar zaio. Pantaila osoko edukia gordetzeko, ONARTU botoiari sakatu behar zaio.



Zeregin eta entregatzekoak gehitzeko pantaila

3.12. Kronograma

Pantaila honetan zehaztuko dira adierazitako zeregin bakoitzean egingo diren hilabeteak. Proiektuak 12 hiletatik gora egiten badu, bigarren urteko datuak sartzeko, pantailaren goiko aldean dagoen geziaren botoiari sakatu behar zaio.

Gogoan izan datuak gordetzeko, onartzeko botoian egin behar dela klik.



Kronograma gehitzeko pantaila

3.13. Hedapena eta transferentzia

Honako atal hauen inguruko datuak gehitu behar dira pantaila honetan:

- **Proiektutik espero diren onurak eta berrikuntzak** (Proiektuaren balizko ekarpen zientifiko eta teknikoak, jakintzan eta teknologian aurrera egiteko balizko onurak eta epe laburrean, ertainean nahiz luzean ustez lortuko diren transferitzeko moduko emaitzak)
- **Hedapen eta transferentzia plana** (Garapen teknologikorako, erakusteko eta prestakuntzarako jarduerak aipatuko dira hemen. Gehitu behar da patenta litekeen emaitzarik lortu ahal den)

- **Prestakuntza plana** (Bekadunik eskatuz gero, adierazi egin beharko da zeintzuk izango diren haren zereginak eta haien barruan zein prestakuntza emango zaion)

Pantaila osoko edukia gordetzeko, ONARTU botoiari sakatu behar zaio.



The screenshot shows the 'ONURAK, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA' form in the IKERTU online system. The form includes sections for 'Titulua', 'Proiektutik espero diren onurak eta berrikuntzak', 'Hedapen eta transferentzi plana', and 'Prestakuntza plana'. A navigation menu on the left lists various project categories. An 'ALDATU' button is visible at the bottom right of the form area.

Emaitzen hedapen eta transferentzia agertzeko pantaila

3.14. Ikertaldearen kalitatea

Atal honetan gehituko dira UPV/EHUko ikertaldeko kideen ikerkuntza esperientziari dagozkion datuak. Esperientzia hau justifikatuko lukeen testu orokorraz gain, lehenago burutu diren proiektuak jaso behar dira, unean uneko eskariaren helburuari loturik direla. Ikertaldearen esperientzia agertzeko duen proiektu berri bat gehitzeko, proiektua erdietsi zeneko urtea, deialdia, finantzatu zuen organismoa eta zenbatekoa zehaztu beharko dira. Datu hauek bete eta geri, ALDATU botoiari sakatu behar zaio datuak erregistratuta geratzeko.



The screenshot shows the 'IKERTALDEAREN KALITATEA' form in the IKERTU online system. It features a table for 'Ikertzaileen Aurreko Esperientzia' with columns for 'Adierazle', 'Ikertzaile nagusiarentzat', and 'Talde guztientzat'. The table lists various indicators such as 'Zientzi aldizkarietan artikuluen kopurua', 'Liburuen zenbakia', and 'Aipamenak'. An 'ALDATU' button is located at the bottom right.


Adierazle	Ikertzaile nagusiarentzat	Talde guztientzat
Zientzi aldizkarietan artikuluen kopurua	0	0
Liburuen zenbakia	0	0
Libururen kapituluaren zenbakia	0	0
Aipamenak	0	0
Gonbidatutako batzarren/Ponentzien zenbakia	0	0
Patenteen kopurua	0	0
Arte-obrak eta erakusketa	0	0
Gidatutako doktorego-tesien zenbakia	0	0

Ikertaldearen kalitatea agertzeko pantaila

Aipamenak deritzon eremuan, jasoko da lanok beste artikuluetan jaso duten aipuen kopurua. Lehenengo zutabearen, ikertzaile nagusiari dagozkionak besterik ez da jasoko eta, bigarrenaren, ikertzaile nagusiaren eta kideenak jasoko dira.

3.15. Ikertaldearen historiala

Azken bost urteei dagokie eta hau izango da ebaluaziorako kontutan hartuko dena.



Ikertaldearen historiala agertzeko pantaila

3.16. Bestelako alderdiak

Atal honetan, proiektuak izan litzakeen genero berdintasun, alderdi etiko eta antzeko gaien inguruko datuak sartuko dira, bai eta jaso nahiko liratekeen bestelako kontsidero batzuk ere.



Bestelako alderdiak agertzeko pantaila

3.17. Ekonomi memoria

Ekonomi memoria urteka sartzen da eta honen laburpena lehenengo pantailan ikusi ahal da, GUZTIRA botoiari sakatuta. Nolanahi ere, justifikatu behar da deialdian eskatzen den aurrekontua SARU JUSTIFIKAZIOA botoian klik eginda.

Kontzeptu bakoitzaren ondoan diren ERAKUTSI GEHIAGO botoietan klikatuz, sartuko ahal dira eskatzen den aurrekontuari dagozkion datuak. Gogoan izan ez dela posible kontzeptu guztietan baliorik izatea, izan ere, deialdia zein den, aurrekontu partida batzuk baizik ez baitira finantzarriak.

Aurrekontuaren hasierako pantaila

		AYUDAS A LA INICIACION EN INVESTIGACION 2014	GUZTIRA
1 URTEA			
	Ibilgetua	0.00 €	0.00 €
	Giza balabideak	0.00 €	0.00 €
	Bestelako balabideak	0.00 €	0.00 €
	Guztira:	0.00 €	0.00 €

Lehenengo urterako eskatutako aurrekontua


		AYUDAS A LA INICIACION EN INVESTIGACION 2014	GUZTIRA
	Ibilgetua	0.00 €	0.00 €
	UPV / EHUko langileak	0.00 €	0.00 €
	Langile kontratatutak	0.00 €	0.00 €
	Bekadunak	0.00 €	0.00 €
	Azpikontratazioa	0.00 €	0.00 €
	Suntsigaria	0.00 €	0.00 €
	Bidalak eta dietak	0.00 €	0.00 €
	Bestelako gastuak	0.00 €	0.00 €
	Guztira	0.00 €	0.00 €

Eskatutako aurrekontuaren guztirakoa

3.18. Eskaria igorri Ikerketaren aldeko errektoreordetzara

Behin memoria beteta eta deialdiaren azken data amaitu baino lehen, eskaria bide telematikoa erabilia igorri behar zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari. Honetarako, datuen sarrera amaitzeko botoian klikatu behar da.

Sartutako datu guztiak zuzenak badira honako mezu hau ageriko da pantailan:

 Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea	
ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA: IKERTZAILEA	

FINALIZAR INTRODUCCIÓN
La revisión electrónica ha sido superada. Pulse aceptar para enviar a la OTRI.
<input type="button" value="ACEPTAR"/>

Berrazterketa gainditu delako mezua

Berrazterketa gainditu bada, ONARTU botoiari sakatu behar zaio eta eskaria Ikerketaren arloko Errektoreordetzari igorriko zaio, eskari zenbaki bat esleituta.

Jarraian, honako dokumentu hauek inprimatu behar dira, sinatu eta zigilatu eta gero, UPV/EHUREN erregistroetako edozeinetara aurkezteko:

- **UPV/EHUko ikertalde eta sail eta institutuaren baimena.**
- **Eskariaren laburpena**

Ez da **Eskari osoa** deritzon dokumentua inprimatu eta igorri beharrik, kontsulta eta artxiborako besterik ez baita.

Zerbait bete gabe balego eta, hortaz, gainditu beharreko berrazterketa elektronikoa gainditu ez badago, sistemak jakinaraziko dizu zer falta zaizun.

UPV/EHU proiektu berria ↳ Datu orokorrak ↳ UPV/EHUko taldea ↳ Enpresak ↳ Enpresetako taldea ↳ Zentro laguntzaileak ↳ Z. laguntzailetako taldea ↳ Proiektu aktiboak Memoria ↳ Laburpena	<table border="1" style="width: 100%;"> <tr> <th colspan="2" style="background-color: #2c4e64; color: white;">DATUAK SARIZEN AMAITU</th> </tr> <tr> <td colspan="2" style="color: red; font-weight: bold;">Ez du berrikuspen elektronikoa gainditu. Jarraian zehazten dira oraindik bete gabe dauden pantaila eremuak:</td> </tr> <tr> <th style="width: 30%;">Aukera</th> <th style="width: 70%;">Eremua</th> </tr> <tr> <td>Taldea</td> <td>Ikertzaille kopurua delaldian zehaztutakoa baino handiagoa izan behar da</td> </tr> <tr> <td>Taldea</td> <td>Ikertzaille bakoitzaren curriculuma erantsi behar duzu</td> </tr> </table>	DATUAK SARIZEN AMAITU		Ez du berrikuspen elektronikoa gainditu. Jarraian zehazten dira oraindik bete gabe dauden pantaila eremuak:		Aukera	Eremua	Taldea	Ikertzaille kopurua delaldian zehaztutakoa baino handiagoa izan behar da	Taldea	Ikertzaille bakoitzaren curriculuma erantsi behar duzu
DATUAK SARIZEN AMAITU											
Ez du berrikuspen elektronikoa gainditu. Jarraian zehazten dira oraindik bete gabe dauden pantaila eremuak:											
Aukera	Eremua										
Taldea	Ikertzaille kopurua delaldian zehaztutakoa baino handiagoa izan behar da										
Taldea	Ikertzaille bakoitzaren curriculuma erantsi behar duzu										

Berrazterketa gainditu ez delako mezua

Honelakoetan, atzera bueltatu eta adierazitako datuak zuzendu beharko dira eta berriz ere igorri Ikerketaren arloko Errektoreordetzara.

Inprimatu behar den dokumentazioa ezarritako epearen barruan aurkeztu behar da erregistroan, web gunean jarritako laburpenean zehazten den moduan.